

Norantz doa Europa hizkuntz politikako legegintzaren alorrean?

Dónall Ó Riagáin

1994ko otsailaren 9an, Europako Parlamentuak gehiengo harrigarriaz (318 botu alde, 1 aurka eta 6 abstentzio) onartu zuen Europar Elkarteko Hizkuntza Gutxituen eta hauen Inguruko Kulturei buruzko Killilea Txostena. Gehiengoa zertaraino iritsi zen ikusiz eta gaiaren interesa kontutan hartuz, merezi du informeari dagokion erabakiari, hau da, parlamentuak formalki eta legalki onartutako atalari, begirada labur bat egitea.

On 9 February 1994, the European Parliament voted by a landslide majority (318 votes in favour, 1 against with 6 abstentions) to adopt the Killilea Report on Lesser Used Languages and their Attendant Cultures in the European Union. Because of the size of the majority in favour and because of the topicality of the decision, it is worthwhile briefly looking at the main points contained in the resolution accompanying the report i.e. the part which formally and legally adopted by Parliament.

*«Killilea txostenak
hizkuntza eta kultura
minoritarioak estatu
partaideen barruko
estatutu legalen bidez
babestuak egon
beharko liratekeela
aipatzen du»*

Erabakiak Europar Elkarteko estatu partaideek beraien gutxiengo linguistikoak onartzearen beharra adierazten du. Era berean, estatuei eskatzen zaie hizkuntza hauen babes eta garapena ziurtatzeko behar diren oinarritzko baldintzak bultzatzen organu legal administratiboak sor ditzaten. Horrez gainera, hizkuntza eta kultura minoritario hauek estatu partaideen barruko estatutu legalen bidez babestuak egon beharko liratekeela ere aipatzen du. Erabilpen mugatua duten hizkuntzak babesteko Hizkuntza Erregional edo Gutxituen-tzako Europar Gutunaren eraginkortasuna eta era berean malgutasuna azpimarratuz, oraindik sinatu ez duten estatu partaideen gobernuari dei egiten die berehala sina dezaten. Era berean, hauen parlamentuei Konbentzioa berretsi dezaten eskatu zaie, eskualde bakoitzaren behar eta nahiei hobeki egokituko zaizkien pasarteak aukeratu ondoren. Ikuspegi legaletik, berriz ere azpimarra daiteke estatu partaidei eta gaiari loturiko eskualdeei egiten zaien deia, bi estatu edo gehiagotan banaturik dauden herriak kultura eta hizkuntza arloko akordioetara iristeko aukera azter dezaten.

*«Ikuspegi legale-
tik, berriz ere azpima-
rra daiteke estatu
partaideei eta gaiari
loturiko eskualdeei
egiten zaien deia, bi
estatu edo gehiago-
tan banaturik dauden
herriak kultura eta
hizkuntza arloko
akordioetara iristeko
aukera azter deza-
ten»*

Maila praktikoago batetan, Europar Batzordeari dei egiten dio *Linguak* bultzatutako erabilpen mugatua duten hizkuntzentzako programa gauza dezan. Batzordeari, Elkarteko Politikaren zenbait alor lantzerakoan ere, kultura eta hizkuntza gutxituak kontutan har ditzan eskatzen zaio, hizkuntza hauen hiztunen beharrak betetzeko eginbeharrak eginez. Hezkuntza eta kulturarako programak, esaterako, Gazteria Europarako, Erasmus, Tempus eta Media aipatzen dira testuinguru honetan. Telekomunikazioen teknologi digital berria, satelite eta kable bidez bidalitako transmisioak jasotzeko erabil daitekeena, hizkuntza gutxitu gehiago eramateko erabiltzeko deia ere egiten du. Batzordeari Elkartearen ikustentzute alorreko politikan hizkuntza gutxituen erabilpena bultzatzen dezan eskatzen zaio, adibidez Definizio Handiko Telebistaren kontuan edota hizkuntza gutxituen ekoizle eta *edasleei programa berriak egin ditzaten lagunduz.

Egitura Fondoek dagokienez, Kontseiluari eta Batzordeari herrien ondare kultural eta linguistikoa kontutan hartzea eskatzen zaie Lurraldeen Garapenerako Europar Fondoak banaketa egiterako orduan, hizkuntza eta kultura erregionalak babesten dituen neurriak barnesartzen dituen osatutako garapen proiektu erregionalak babestuz; eta era berean gizarte politikaren garapena eta Gizarterako Europar Fondoaren diru banaketa egiterako orduan. Guzti honek emaitza egokiak ematen dituela ziurtatzeko, Kontseiluari eta Batzordeari dei

egiten zaie hizkuntzen eta kulturen aldeko programak behar bezala hornitzen direla ziurtatzera. Zehazkiago, hizkuntza gutxituak ordezkatzeko dituzten erakunde europarren, bereziki Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarraren aldeko babesa jarraitzea eta hauei beharrezko baliabideak eskaintzea eskatu zaie. Estatu partaideen gobernuak eta aginte lokal eta erregionalei antzerako deia egin zaie elkarte espezializatuen ganako babesa bultzatzeko, bereziki estatu partaideen Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarraren batzordeei.

Killilea Txostena eta Erabakia, Europar Parlamentutik azkenengo 13 urteetan sortu diren azken proposamen sorta besterik ez dela konturatu beharra dago. Hauetatik lehenengoa 1981eko Arfé Txostena izan zen. Honek, estatu partaideei hizkuntza gutxitu eta erregionalen hiztunak errespetatzeko deia egiten zuen, bereziki hezkuntza alorrean, administrazio publikoan, komunikabideetan eta gizarte arazoetan egoera kritikoa erakusten zutenei. Europar Elkarteko erakundeetan ere egiten zuen dei alor honetan, eta ondorioz, Europar Elkarteko aurrekontuen zati bat eskaini zitzaion, urtero gorantz jarraitu duena. Europar Parlamentuak hizkuntza gutxituentzako taldearteko batzorde bat ezar zedin bultzatu zuen, alor honetan proposamenak betetzen ziren gainbegiratzeko. Arfé Txostenak bultzatutako eta kontutan hartzeko beste gertaera bat, Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarraren ezarpena izan zen 1982an.

Arfé Txostenak, erabaki berrindarkor bat jaso zuen Parlamentutik 1983ko Otsailean, eta 1987an, Willy Kuijpers partaide flamendarrak prestatutako txosten berri bat onartu zuen. 1990an, Luxemburgoko Reding andreak prestatutako txosten zehatzago bat onartu zuen Parlamentuak, katalunieraren egoerari buruz Europako Elkarteko Erakundeetan.

Norbaitek galde dezake zer garrantzi duten txosten eta erabaki hauek. Zer puntutaraino dira eraginkorrak? Hizkuntza gutxituentzako mesede zehatzik ekarri al dezakete? Erantzuna zera da: bere garrantzia badutela baina ez litzatekeela gainetsi behar.

Iaz, Maastricht Tratatuak baieztatu zen arte, Elkarte Europarraren tratatuetan ez zegoen artikulua bakar bat ere 9 hizkuntza ofizialez gain, beste hizkuntzarik aipatzen zuenik. Irlandarra bera ere, Tratatuaren hizkuntza bat izanez, ez du aipatzen. Hezkuntza edo kulturarekiko erreferentziarik ere ez zegoen! Beraz, 1981 eta 1993 urte tartean egin zena, inolako oinarri

«Killilea Txostena eta Erabakia, Europar Parlamentutik azkenengo 13 urteetan sortu diren azken proposamen sorta besterik ez dela konturatu beharra dago»

«Arfé Txostenak bultzatutako eta kontutan hartzeko beste gertaera bat, Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarraren ezarpena izan zen 1982an»

sendorik gabe egin zen.

«1987an Europar Elkarteko auzitegiak gobernu irlandarrari arrazoia eman zion irakasle iraukorkor guztiek gutxienez hizkuntza irlandarraren oinarritzko ezaguera izan behar dutela agintzen duenean»

«Maastricht Tratatuak oinarria eskaintzen du hizkuntza gutxituen alde ekiteko. Tratatuaren 128. artikulua zera dio: "Elkarrekin estatu partaideen kulturak garatzen lagunduko du, beraien aniztasun nazional eta erregionalak errespetatuz"»

Hala ere, erabaki hauek *lege biguntzat* jo daitezke. *Lege gogorra* diogunean, gehienetan, legegileek ezarritako legeaz ari gara, hiritarrak, nahi izanez gero, bere giza eskubideak bortxatuak izan direla uste baldin badu, tribunaletan errekurtsioa aurkezteko eskubidea duelarik. *Lege biguntzat* normalean legezko agintaritzak onartutako akordio, kontratu, edo printzipio sorta bat esan nahi dugu, inposatu ezin dena. Honek ez du esan nahi *lege biguna* alperrikakoa edo ia alperrikakoa denik. 1987an, Anita Groener, Irlandan lan egiten zuen arte irakasle irlandarrak Gobernu Irlandarra Luxembourgoko Europar Elkarteko Auzitegira eraman zuen. Irakasle honek ezin zuen lanpostu iraukorkor bat lortu irakaskuntzan Irlandan, Gobernu Irlandarrak irakasle iraukorkor guztiek gutxienez hizkuntza irlandarraren oinarritzko ezaguera izan behar dutela agintzen baitu (397/87 kasua). Groener andreak, honek langileen mugimendu askea murrizten zuela adieraziz oinarritu zuen bere kasua, askatasun hori Europar Elkarteko Tratatuak ziurtatu egiten baitute, eta egoera honek desabantailan jar-tzen zuen irakasle irlandarren aurrean. Gobernu Irlandarrak, irlandarra hizkuntza nazionala eta lehen hizkuntza ofiziala zelako eutsi zion, eta gehiengoak hitzegiten duen hizkuntza ez izan arren, estatu batek bere hizkuntza nazionala defendatzeko eskubidea duelako.

Auzitegiak Irlandarraren jarrera babestu egin zuen, eta bere erabakian, Parlamentu Europarrak onartutako Arfé eta Kuijpers Erabakiak eta Europar Elkarteko Erakundeek hizkuntza gutxituak bultzatu eta zaintzeko lanean ari direnei emandako babesa aipatu zituen erabaki hau sostengatzeko. Beraz, *lege bigunari* dagozkion erabakiak (hau da, Parlamentu Europarraren erabakiak) *lege gogorari* dagozkion erabakiak partzialki justifikatzeko erabiliak izan dira.

Maastricht Tratatuak eskaintzen du *lege gogor* oinarritzko bat hizkuntza gutxituen alde ekiteko. Tratatuaren 126. artikulua estatu partaideen aniztasun kultural eta linguistikoaz hitzegiten du, eta Tratatuaren 128. artikulua zera dio: "Elkarrekin estatu partaideen kulturak garatzen lagunduko du, beraien aniztasun nazional eta erregionalak errespetatuz". Beraz, kontseilu eta komisiolari bideratutako Killilea Erabakiaren proposamenak legezko oinarri baten gainean burutu ditzakete erakunde hauek. Hala ere, Tratatuaren 3b artikulua lagungarritasun printzipioari bide egiten dio, eta zera dio:

Bere kompetentzia eskusiboen barruan ez dauden eskualdeetan, Elkarrekin proposatutako ekimenen helburuak Estatu Partaideek behar bezala lortzen ez dituzenean bakarrik egingo du lagungarritasun printzipioren arabera; proposatutako ekimenaren garrantzia edo ondorioak kontutan hartuz, Elkarrekin hobeto eraman baititzazke aurrera.

Guzti hau dela eta, estatu partaideei, aginte erregional eta lokalei ekimen espezifikoa hartzeko dei egiten dieten Killilea Erabakiaren atal horiek, indar moral eta politikoa besterik ez dute, eta aipatutako aginteak ezin ditu Parlamentuaren proposamenak ezartzera behartu.

Europako Kontseiluak, Europako Konbentzioaren eredu legala baietsi ondoren, Erabakiak hizkuntza gutxituen baberako tresna eraginkor eta malgu bezala onartzen duena, ziurrenik, Killilea Erabakiaren artikulua garrantzitsuenak hizkuntza erregional edo gutxituentzako Europar Gutunaz hitz egiten dutenak dira. Erabakiak, oraindik sinatu ez duten estatu partaideen gobernuak dei egiten die ere berehala sinatzea. Era berean, hauen parlamentuei Konbentzioa berretsi dezaten eskatu zaie, eskualde bakoitzaren behar eta jomugei hoberen egokituko diren atalak aukeratu ondoren.

Nazioarteko Konbentzio bat, instrumentu legal bat da, Parlamentuak onartzen dituen erabakiak baino askoz gogorragoa. Gutuna, Europako 13 demokraziak sinatu dute, eta batek berretsi du dagoeneko, Noruegak. Konbentzio bat bezalako nazioarteko tresna legal bat berrestera, estatu subirano baten parlamentuak Konbentzioari indar legala emateko lege bat sortzen du; sarri Parlamentu Akta bat. Pertsona edo talde batek nola errekurri dezakeen, Konbentzioaren punturen batekiko inolako kezarik izanez gero, neurri batean estatu bakoitzak prestatutako bide legalaren menpe egon daiteke. Kanadako legeak adibide interesgarriak aipatzen ditu, eta beraien eskubide linguistikoak bortxatuak izan direla uste dute hiritarren esku daude.

Hizkuntza Erregional edo Gutxituentzako Europar Gutunak, talde osagarriak Europako Kontseiluaren Idazkari Orokorrari txosten bat aurkeztera behartzen ditu aldizka, Gutunaren II. Atalaren eta onartuak izan diren III. Atalaren horniduren aplikazioaz hartutako neurrien arabera. Txosten hauek hiru urtez behin aurkeztuko dira eta publikoak egingo dira. Adituen

«Killilea Erabakiak indar moral eta politikoa besterik ez du, eta estatu partaideak, aginte erregionalak eta lokalak ezin ditu Parlamentuaren proposamenak ezartzera behartu»

«Europako Elkarrekin estatu partaideen parlamentuei Konbentzioa berretsi dezaten eskatu zaie. Nazioarteko Konbentzio bat, instrumentu legal bat da, Parlamentuak onartzen dituen erabakiak baino askoz gogorragoa»

«Hizkuntza gutxituetako herriek jarrai dezaketen estrategia-hoberena, Europan integrazio haundiago bat eta beren eskubideak ziurtatzeko tratatu batetan bil daitezkeen artikulua sortzeko presio egitea izango litzateke»

«Erabilpen mugatuko edota gutxituko hizkuntzak babesteko mugaz kanpoko akordioak, edo nazioarteko tratatuak ere sor daitezke. Abian dauden zenbait eredu badira gaur egun Europan, eta arazoak arazo, eraginkorrak izan dira»

batzorde batek aztertuko ditu txostenak orduan. Kide den estaturen batean legalki ezarritako gorpazio edo elkarteek aditu batzordearen gainbegirada jaso dezakete estatu horrek Gutunaren III Atalean beregain hartutako konpromezuari dagokionez. Dagokion estatuarekin hitz egin ondoren, adituen batzordeak informazio hau kontutan har dezake txostena prestatzerakoan. Azkenean, Ministrari Batzordearen eskutian jarriko dute txostena, eta publiko egin dezakete.

Giza Eskubideen eta Oinarrizko Askatasunerako Europar konbentzioa da, Europar hiritarrek Eskubide horiek eskatzera jo dezaketen konbentzio bakarra, bertako Europar Auzitegiaren bidez. Ondorioz, Hizkuntza Erregional eta Gutxituen kasuan, azken erabakia, desohore moral eta politikotzat agertuko litzateke, estatu batek automatikoki berretsita duen nazioarteko konbentzioa haustearren errudun izango litzateke- elarik. Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren kasuan ere konbentzioa hautsi duten estatuak gaitzesteko har ditzakeen neurrien eremua oso mugatua da.

(Edozein kontura daiteke berehala Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak berak ere ez duela oso gustoko erabakiak hartzea dituen estatu baten aurkako zigorrak jartzea. Iraken aurka egindako "Basamortuko Ekaitza" ekintza, Irakek Kuwaiten indarrez sartzearekiko Nazio Batuen erabakiei jaramonik ez egitea erabaki zuenean, salbuespen nabarmentzat jo behar dugu. Israelek urte askoz mesprezatu ditu arabiar eskualdeetako okupazioari eta bertako biztanleekiko tratuari buruzko zenbait erabaki, eta hala ere ez du Nazio Batuen zigor gogorrik jaso. Agiri hau idazteko garaira arte, Bosniako gatazkan Nazio Batuen jarrera antzekoa izan da).

Ezar daitezkeen nazioarteko neurriek dagokionez, badirudi hizkuntza gutxituetako herriek jarrai dezaketen estrategiarik hoberena, Europan integrazio haundiago bat eta beren eskubideak ziurtatzeko tratatu batetan bil daitezkeen artikulua sortzeko presio egitea izango litzateke.

Erabilpen mugatuko edota gutxituko hizkuntzak babesteko mugaz kanpoko akordioak, edo nazioarteko tratatuak ere sor daitezke. Abian dauden zenbait eredu badira gaur egun Europan, eta arazoak arazo, eraginkorrak izan dira.

Hauetatik ezagunena 1955ko "Copenhagen-Bonn" Akordioa dugu, Alemaniako gutxiengo danimarkarraren hizkuntza eta kultura eskubideak babesten dituen, Danimarkako gutxiengo alemaniarren eskubideak babesten dituen

bezalaxe. Elkarrenganako erabaki honek eraginkortasun berezia izan du eta arrazoi guztiz esan dezakegu, bi komunitate hauek Europa barruan egoera hobereanean daudela beraien hizkuntz eskubideei dagokienez. Italiak, mugakide zaizkion estatuekin zenbait erabaki burutu ditu. Jugoslavia zena desegin zen arte, bazen akordio bat Istriako gutxiengo italiarra eta Trieste probintziako gutxiengo eslobeniarra babesten zituena. Istriako italiarrak bi estatu subiranotan banatuta daude; Kroazia eta Eslovenia. Eslobeniarrengandik tratatu jatorra jasotzen jarraitzen duten bitartean ezin daiteke gauza bera esan Kroaziako agintaritzari buruz. Italiak Austriarekin ere akordio bat burutu zuen Bozen/Boltzano probintziako alemaniar hitzunen eta Ladin hitzunen komunitateen eskubideak ziurtatzen zituena. Frantziar hitzunen komunitatea antzeko babespean dago Aosta Haranean.

Hungaria, demokrazia ezarri zuenez geroztik, gogor aritu da lanean minoriak babesteko akordioak burutuz, eta dagoeneko badu Eslobeniarekin akordio bat, eta Errusiar Federakuntzarekin eta Ukrainiarekin zenbait aldarrikapen burutu dituzte.

Tamalez, Grezia edo Mazedoniako Jugoslaviar Errepublikak ohinari (FYROM) ez zaie bururatu FYROMeko gutxiengo greziarra eta Greziako Eslabo-Mazedoniar komunitatea babesteko akordiorik burutzea.

Estatu subirano batzuk beren konstituzioetan hizkuntzari buruzko zenbait artikulua badituzte. Konstituzio espainiarrak gaztelera gain hizkuntza erregionalak ere onartzen ditu. Konstituzio Irlandarrak eskuzabaltasun bereziz tratatzen du irlandera. Hizkuntza nazionala denez, lehen hizkuntza dela adierazten du. Ingelesa bigarren hizkuntza ofizialtzat onartzen du. Irlandera lehen hizkuntzatzat onartzea, Irlandar Errepublikako populazioaren %5 baino gutxiagok erabiltzen duela kontutan hartuz, nabaria da irlandarrarekiko eskuzabaltasuna. Hala ere, Konstituzio hornidura honi aplikazio praktikoa emango liokeen Hizkuntz Aktarik ez zitzaion eman. Ingelesak munduan egoera dominatzaile bat izan arren, Britania Handiak ez du ingelesaren statusa finkatzen duen idatzizko konstituzio edo hizkuntz aktarik. Frantziak joan zen urtera arte ez zuen Konstituzioa zuzendu frantziara errepublikako hizkuntza zela adierazteko.

Onartze konstituzionalaren ondoren, estatu subiranoen gobernuak dekretatutako hizkuntz aktak izango lirateke hizkuntzaren onartze legal gorena. Belgika eta Suitza ditugu berehala burura datozkigun adibideak, beraien eskualde eta

«Alemaniako gutxiengo danimarkarra eta Danimarkako gutxiengo alemaniarra arrazoi guztiz esan dezakegu, bi komunitate hauek Europa barruan egoera hobereanean daudela beraien hizkuntz eskubideei dagokienez»

kantoi desberdinetako hizkuntza desberdinen onartze ofiziala dela eta. Aztertzaile aditu gehienek, alemaniarra Belgikan eta erretoerromantzea eta italiarra Suitzan itxurazko tratua jasotzen dutenen adibide izango lirateke.

«Zalantzarik gabe, Europako Hizkuntz Akta hoberenak Espainiako kataluniera eta euskara hitz egiten den elkarte autonomoek aldarrikatutako horiek ditugu, gure lagun kataluniar eta euskaldunen erreserbak ahaztu gabe»

1993ko Galeseko Hizkuntz Akta, beste estatu legegintza berri eta oso interesgarri bat dugu. Galestar hizkuntzaren aldeko ekintzaileek nahiko luketen bezain indartsua izan ez arren, 1967ko Hizkuntza Galestarraren Aktarekiko aurrerapen nabarmena da, azken honek galestarraren erabilpena lege auzitegietan erabiltzeko baimena besterik ez baitzuen ematen.

1984ean, orain ez asko beraz, luxenburgera hizkuntza nazional bezala onartzen zuen hizkuntz akta bat aldarrikatu zuen Luxenburgok.

Zalantzarik gabe, Europako Hizkuntz Akta hoberenak Espainiako kataluniera eta euskara hitz egiten den elkarte autonomoek aldarrikatutako horiek ditugu. Gure lagun kataluniar eta euskaldunen erreserbak ahaztu gabe, Europako beste hizkuntza gutxituen komunitateek, hauen legegintza benetan bikaintzat joko lukete, beste komunitateek eredu bezala har dezaketena. Elkarte autonomoek aldarrikatutako legeak izan dezaketen arazoa zera da: legeak estatu subira-noarentzat inolako gatazkarik baldin badakar, gailenduko den legea estatuarena izatea, ez elkarte autonomoarena.

Garrantzi gutxiagoko legegintza mota bat, estatu edo autonomia batek aldarrikatutako dekretu bat dugu. Duela bi urte inguru, Belgikako Komunitate Frankofonoak, Arlongo luxenburgera hizkuntzaren eta valonieraren aldaera desberdinen onartze mugatua zabaltzeko dekretu bat aldarrikatu zuen. Italiar Gobernuak dekretu bat aldarrikatu berria du Trentino Probintzian ladinera babesteko zenbait neurriekin.

Europa osoko lege, arauketa eta estatutuetan badira noski hizkuntzen gaiarekiko zenbait aipamen. Nik dakidanez behintzat, legegintza mota hauen inguruan azterketa orokorrik egin ez bada ere, onartu beharra dago estatutu eta arautegiek batzuetan konstituzio baten artikulua baino eragin praktiko indartsuagoa izan dezaketela, esate baterako.

Pozgarria da Bartzelonako *Mercator-Legislation* delakoak Europako hizkuntzen inguruko lege guztiak, nahiz Europa, estatu, lurralde edo eskualde mailakoak izan, sailkatzeko lana bere gain hartu duela jakitea. Izugarritzko lana da, ziurre-

nik urteak hartuko dituena, baina zalantzarik gabe, oso garrantzitsua izateaz gain, mesede handikoa ere izango da. Egileak oraintsu jakin izan du Europako Kontseiluak komunitate minoritarioak eta hauen hizkuntzak babesteko legegintzarako atal berri bat garatzen ari dela bere liburutegian.

Hizkuntza inguruko legegintza eta babes legala oso garrantzitsuak dira eta beti izango da hizkuntza plangintza on eta seguru baten oinarria. Inoiz ahaztu behar ez duguna zera da: hizkuntz akta bat ez dela ekintza plan bat eta ekintza plan bat ez dela ekintza. Azken finean, hizkuntza baten nondik norakoa, hizkuntza hori erabiltzen duen komunitatearen determinazio eta eraginkortasunak erabakiko du.

«Hizkuntz akta bat ez da ekintza plan bat eta ekintza plan bat ez da ekintza. Azken finean, hizkuntza baten nondik norakoa, hizkuntza hori erabiltzen duen komunitatearen determinazio eta eraginkortasunak erabakiko du»

Dónall Ó Riagáin

*Hizkuntza Gutxituen Aldeko Bulego Europarreko
Idazkari Nagusia,*

*General Secretary of the European Bureau for Lesser
Used Languages*

Itzultzailea: Pello Zumeta